

Dolareak



rainean dago giltza, jakina da hori. Bai eta 1.643. urteko *Gero, bi partetan partitua eta berezia* delako liburuarena ere. Zeren bizitzea baita irakurtzea. Behinolakoa berpiztea. Une batean ekoitzia, beste batean gozatzea... sagardoa bezala.

Horrexegatik joango naiz Axularren irakurketara, Ur. Atsegin ez gainera.

Euskara-ikasleen errekonozimendu-jaia antolatu dute Bilboko euskaltegi batzuek ekainean, bada-kizu. Hasi eta buka, hor mamituko da Axularren maratonia, *Geroren* irakurketa kateatua, *non stop* estilokoa.

Galdetzen badidazu zergatik egingo den esker oneko festa hori, esango dizut ezen, ehunka ordu ematen dituztelako ikasle horiek gure hizkuntza ikasten, ahalegin ikaragarria egiten dutelako Juanjo, zu eta hirurok bezain euskaldunak izateko.

Askotariko ospakizunen artean, Axularren irakurketa planteatu da aurten, iragana ezkontzeko orainarekin; nafarraren diskurtso joria, Bilboko euskaldun berriaren dardara ahularekin. Ekialdea, Mendebala ere badelako.

Laurehun lagun gonbidatu dituzte antolatzailleek, *Geroren* orrialde bana irakurtzeko. Arriaga antzokian da zita. Berun eta pike goriz, hogeita hamazazpian *naZIONALEK* Bilbo hartu zuten egun berean. Sinbolikoa, oso.

Kontra-erreformaren izenean idatzitako liburua da *Gero*. Hala izango da, hala nahi bada. Oro har, ez zukeen kalterik ekarriko irakurketa desakralizatzeak. Salatu ohi zaion erlijio eta moral zaharkituaz gainera, liburu horretan balio etiko eta literario interesgarriak aurkitu al dezake gaur egungo begiak?

* * *

Bi partetan partitua ez, baizik hainbatetan zatitua da Euskal Herria. Sutsu dihardu lehendakariak azken aste eta egunotan, Euskal Autonomia Erkidegoaren geroko geroari buruz.

2.010eko data jomuga hartuta, sei hilabete,



J. I. Basterrretxea

Oñasagarre

Apalategi

berrehunen bat egun eman ditu Ibarretzek Espainiako presidentearikoko elkarrizketa prestatzen. Maiatzeko ilbetarekin etorri da horien bien arteko zita. Giro-aldaketa egotzi ohi zaio ilargi beteari...

Idatziz eskuratu dio lehendakariak Zapaterori planaren zirriborro eguneratua. Izkribu horretan, azkenaurreko puntu batean, euskarari buruz hitz egiten du lehendakariak. Euskararen geroaz.

Ez du zarata eta hots handirik harrotu euskararen geroak ibilbide-orriaren jira-buelta eztabaidatsuan. *Adostasun politikoa, kontsulta, organoa* eta *erreferendum* direlako hitzek bai sortu dutela benetako harrabotsa etxe guztietan. Ez euskarak.

Bitartean, Iruñeak eta Parisek ekarri dute opari zurbil askoa, sagar ustel ozpindua. *Euskarara bai, baina ez* delako politika horiekin.

Eta hori guztia, zer dela-eta? Beharbada, Atxagak dioenaren haritik, euskaldunok ez dugulako presio-erakunderik adosten gure artean. Dolareak falta zaizkigu.

* * *

Berrogei urtez egin zaigu zaharrago maizta, Maiatz hura. *Debekaturik, debekatzera...* ez zen lelo makala. Baina, Axularren *Geroko* kanabera alferrak bezala, fruitu ikusgarririk gabe, barne-hutsik geratzen ari da udaberri lastodun hura.

Ez du barkatzen denboraren liz-paperak. Sagarrondoan lore zuri-gorriak ahaztu zaizkigu eta adokin-zatiak salgai jarrita, negozio bihurtu dute hirurogeita zortziko maizta, Maiatz hura.

Diru zikin bihurtu dute iraultzaren hondartza. Eta galburuak, erregai. Horra gure gizarte aurreratuaren alkimia horditua. Baina, badaezpada, alkohola kendu berri diote ardoari. Ez osasunaren alde, edo zaporea indartzeko esperantzarekin; ezpada ze polizia-kontroltan positibo ez emateko.

Udaberriko alkimiak. ■



Beharbada, Atxagak dioenaren haritik,
euskaldunok ez dugu presio-erakunderik
adosten gure artean. Dolareak falta zaizkigu

